

Euskal Autonomia Erkidegorako Estatus Politiko Berria: alderdi politiko eta gazte-erakunde abertzaleen ikuspegiak eta proposamenak

Onintze Azpitarte Lopez
Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskunderen testuinguruan (2024ko apirilaren 21ean egindakoak), Euskal Autonomia Erkidegorako (EAE) Estatus Politiko Berri baten beharrak garrantzia hartu du alderdi politiko abertzaleen diskurtsoetan. Hori dela-eta, ikerketa-lan honetan euskal alderdi abertzaleek (EH Bildu eta Eusko Alderdi Jeltzalea) eta gazte-antolakunde edo -mugimendu abertzaleek (Ernai eta Euzko Gaztedi-EGI) EAerako Estatus Politiko Berriaren inguruan dituzten iritziak, helburuak eta proposamenak ikertu ditugu. Horretarako, alderdi abertzale bakoitzaren eta gazte-antolakunde edo -mugimendu bakoitzaren ordezkari bana elkarrizketatu dugu. Horrela, Estatus Politiko Berrirako bidean zenbait puntu partekatzen dituztela ondorioztatu ahal izan dugu, baina baita desadostasun batzuk dituztela ere, adibidez, akordiorako borondateari, lurraldearen ulermenari eta abarri buruz.

GAKO-HITZAK: EAerako Estatus Politiko Berria · EH Bildu · EAJ · Ernai · EGI.

New Political Status for the Basque Autonomous Country: visions and proposals of nationalist political parties and youth organisations

In the context of the last elections to the Basque Parliament, held on 21 April 2024, the need for a New Political Status for the Basque Autonomous Community has gained relevance in the discourses of the nationalist political parties. For this reason, in this research work we have analysed the opinions, objectives and proposals of the nationalist parties (EH Bildu and the Basque Nationalist Party) and of the nationalist youth organisations or movements (Ernai and Euzko Gaztedi-EGI) on the New Political Status for the BAC. To do so, we interviewed a representative of each nationalist party and of each youth organisation or movement. Thus, we have been able to conclude that they share some points on the path towards the New Political Status, but also that they have some discrepancies, for example on the willingness to compromise, understanding of territory, etc..

KEY WORDS: New Political Status for the Basque Autonomous Country · EH Bildu · EAJ · Ernai · EGI.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.5194>

Jasotze-data: 2025-01-08 *Onartze-data:* 2025-01-20

1. Sarrera

Azken hamarkadetan, globalizazioaren testuinguruan, nazioak eta baita estatuak ere desagertuko zirelako idea hedatu da; alegia, une post-soberano baten atarian gaudelako ustea zabaldu da (Goikoetxea, 2015). Alabaina, aldaketak aldaketa, munduak nazio-estatuetan banatuta jarraitzen du, eta nazio-estatu antolaketak eredu hegemonikoa izaten jarraitzen du oraindik ere (Jessop, 2017). Areago, baieztza dezakegu hainbat lurraldetan eskari subiranistak indartu egin direla azkenaldian (Azkune, 2021). Horren adibide dira Katalunia, Quebec, Eskozia edo Euskal Herria bera, eremu instituzionalari dagokionez behintzat. Zentzu horretan, aldarrikapen horiek unean uneko testuinguru eta momentu historikoaren arabera moldatuz joan dira, eta, aurrerago sakonduko dugunez, eskari nazionalistek, besteak beste, eskari demokratikoen zentzua hartu dute, herritarren borondatea aintzat hartuta. Ildo horretan, subiranotasun-prozesuei dagokienez, gakoa da estatu-egiturei eta demokratizazio-prozesuei erreparatzea (Azkune, 2018). Hari horretatik tiraka, kasu honetan subiranotasun politikoa zentratuz, artikulua honetan Euskal Autonomia Erkidegorako Estatus Politiko Berrian sakonduko dugu.

Artikulu hau EHUKo Subiranotasuna Europako Herrietan Masterrean burututako master-amaierako lan (MAL) batean oinarritzen da, 2024ko urrian defendatua. MAL horretan Euskal Autonomia Erkidegorako (hemendik aurrera EAE) Estatus Politiko Berriaren inguruko alderdi politiko abertzaleen (EH Bildu eta Eusko Alderdi Jeltzalea, hemendik aurrera EAJ) eta gazte-erakunde abertzaleen (Ernai eta EGI)¹ ikuspegiak eta proposamenak aztertu ditugu². Gainera, demokratizazioan sakontzeko, estatu-ahalmenaz gain, gizarte-mobilizazioa ere beharrezko baldintza dela kontuan izanik (Tilly, 2010; Goikoetxea, 2015 eta Zubiaga, 2015), Naziometroaren³ (2023) datuak aintzat hartu ditugu, eta lurraldetasunaren auziaren inguruan jasotako datuei buruz ordezkari abertzaleek egiten duten balorazioa ere ikertu dugu. Hala ere, artikulua honetan EAERako Estatus Politiko Berriaren inguruko iritzietan, proposamenetan eta ikuspegietan zentratuko gara soilik, alde batera utziz Naziometroaren (2023) datuak eta alderdi zein gazte-erakunde abertzaleek horien inguruan egiten duten balorazioa.

Horretarako, lehenik eta behin, ikerketaren helburu nagusia eta helburu espezifikoak definituko ditugu, eta, ondoren, lanean zehar agertzen diren funtsezko teoria eta kontzeptuak azalduko ditugu, hala nola nazionalismoaren eta demokraziaren arteko lotura, edota burujabetza-prozesuen ezaugarriak eta tresnak. Horrekin batera,

1. Ernaik *gazte-antolakunde* gisa definitzen du bere burua, eta EGIk, bere aldetik, *mugimendu* gisa. Hori dela-eta, irakurketa errazteko helburuarekin, lan honetan horiez hitz egitean *gazte-erakunde* terminoa erabiliiko dugu.

2. Hala ere, ikerketaren muga gisa, azpimarratu nahi genuke kasu honetan, metodologiaren atalean azalduko dugun bezala, alderdi eta gazte-erakunde bakoitzaren ordezkari bat elkarrizketatu dugula, eta, beraz, elkarrizketa bakarrak ez duela zertan alderdi eta gazte-erakunde abertzaleen diskurtsoa bere osotasunean ordezkatu. Haatik, etorkizunari begira, gai hau ikertzen eta sakontzen jarraitzeko abiapuntua eta ikerketa-ildoak izan daiteke.

3. Naziometroa izaera nazionaleko (euskal lurralde zein eremu administratibo guztiak barne biltzen ditu) Euskal Burujabetzaren Barometroa da, zeinak aldizkako neurketen bidez euskal gizartearen burujabetzaren eta horren inguruko gaiei buruzko iritzia neurtzen dituen. Ikus: <https://telesforomonzonlab.eus/naziometroa-euskal-burujabetzaren-barometroa/>

EAEren bilakaera historikoa adieraziko dugu. Behin esparru teorikoa garatuta eta ikerketaren metodologiaren nondik norakoak azalduta, analisisan sakonduko dugu. Azkenik, analitik ateratako ondorio nagusiak ezagutaraziko ditugu.

Kasu honetan, Euskal Herria hiru eremu administratibok osatzen dutela jakitun (Euskal Hirigune Elkargoa, Nafarroako Foru Erkidegoa eta Euskal Autonomia Erkidegoa), adierazi nahiko genuke ikertzaile gisa, lan honek zazpi lurraldeak barne biltzea gustatuko litzaikeela. Haatik, hainbat dira azterketa hau soilik EAEn gauzatzearen arrazoiak. Alde batetik, EAEko hauteskunde autonomikoen testuinguruan (2024ko apirilaren 21ean egindakoak) bai EH Bilduk eta bai EAJk beren hauteskunde programetan adierazi zuten EAerako Estatus Politiko Berriaren inguruko eztabaidari heltzeko beharra eta nahia. Beste alde batetik, 2024-2028 Legegintzaldian, Eusko Legebiltzarra gehiengo abertzale eta subiranistaz osatua egongo da lehen aldiz. Halaber, Pradales lehendakariaren inbestidura-saioan, bi alderdiek adierazi zuten Estatutu Itun berri bat lortzeko «konpromisoa» (Pradales, 2024) eta horren inguruko eztabaidari ekiteko «eskuzabaltasuna» (Otxandiano, 2024).

2. Ikerketaren helburuak

Ikerketa honen helburu nagusia EAerako Estatus Politiko Berriari buruz EH Bildu eta EAJ alderdi politiko abertzaleek eta Ernai eta EGI gazte-erakunde abertzaleek zein iritzi, helburu eta proposamen duten ikertzea izanik, honako helburu espezifiko (HE) hauek finkatu ditugu:

1. HE: EH Bildu eta EAJ alderdi politiko abertzaleek eta Ernai eta EGI gazte-erakunde abertzaleek burujabetza, zehazki EAEko burujabetza politikoa, nola ulertzen edo definitzen duten ezagutzea, gaia kokatzeko eta bakoitzaren abiapuntua ulertu ahal izateko.
2. HE: EAEko 2024-2028 arteko Legegintzaldiaren testuinguruan (XIII. Legegintzaldia), alderdi politiko abertzaleek eta gazte-erakunde abertzaleek egungo une politikoari buruz egiten duten analisia aztertzea, Estatus Politiko Berrian aurrerapausoak emateko aukerarik ikusten ote duten identifikatzeko.
3. HE: EAerako Estatus Politiko Berriari buruz dituzten iritziak eta esparru horretan egiten dituzten proposamenak aztertzea, alderdi politiko eta gazte-erakunde abertzaleen edukia jasotzeko.
4. HE: Aurrera begirako bide-orria zehaztu ote duten aztertzea, eta, hala bada, zein pauso edo fase aurreikusten dituzten ezagutzea, alderdi politiko eta gazte-erakunde bakoitzaren estrategia zein den ikusteko.

3. Nazionalismoa eta demokrazia neoliberalismoaren garaian

Nazionalismoaren jatorria azaltzean lau paradigma klasiko aipatu ohi dira: primordialismoa, modernismoa, perennialismoa eta etnosinbolismoa. Teoria horiek zenbait oinarri ezartzeko baliagarriak izan diren arren, 90eko hamarkadatik aurrera, nazionalismoaren eta nazioen inguruko teoria eta ekarpen berriak eta, nolabait,

gaurkotuak garatuz joan dira. Zentzu horretan, Yuval-Davis (2004) autore feministak ohartarazten digu, nahiz eta generoak eta nazioak eta nazionalismoak elkarri eragiten dioten, nazio eta nazionalismoen teorietan ez dela genero-ikuspegia txertatu, eta, beraz, ez direla genero-harremanak aztertu, besteak beste. Gauzak horrela, nazionalismoek oinarri patriarkala izateari uzteko, beharrezkoa da generoaren eta nazioen eta nazionalismoen arteko lotura aintzat hartzea eta gailentzen diren balio patriarkalak aldatzea, nazionalismoak balio sozialen, politikoen eta abarren arabera egituratzen baitira (Amurrio, 2006).

Era berean, Triandafyllidouk (1998, 2022, 2023) dioenari jarraituz, nazioen eta nazionalismoen agerpena azaltzen duten teoria klasikoei garrantzirik kendu gabe, XXI. mendean, testuingurua aldatuz joan den heinean, beste tresna batzuk beharrezkoak ditugu. Hari horri jarraituz, zibiko/etniko dikotomia gainditu eta nazio-eraikuntzan *besteari* garrantzia handiagoa eman behar zaiola adierazten du autoreak. Bere aburuz, «nazio-identitateak besteekiko kontrastearen bidez bakarrik hartzen du zentzua» (1998, 593. or.).

Horrekin batera, zibiko/etniko dikotomia eta paradigma klasikoak gaindituz, Goikoetxeak (2013; 2017) eta Azkunek (2018;2021), besteak beste, arreta jartzen dute nazionalismoaren eta demokraziaren arteko loturan. Subiranotasuna demokraziaren ezinbesteko elementua den arren (Goikoetxea, 2015), oro har, banatuta agertzen eta azaltzen diren kontzeptu eta prozesuak dira, baina egiatan elkarri loturik daude. Izan ere, alde batetik, demokraziaren subjektua *demos*⁴ da, herri-subiranotasunaren ordezkaria; hortaz, demokraziak *demos* birsortzen du. Beste alde batetik, nazionalismoaren subjektua nazioa da; horrenbestez, nazionalismoak nazioa birsortzen du. Gauzak horrela, nazioak demokraziatik at biziraun dezakeen arren, kontrara, *demos*ak bere existentzia bermatzeko beharrezkoa du nazioa (Goikoetxea, 2013). Beraz, demokrazia nazionalismo mota bat bezala defini daiteke (Goikoetxea, 2017), eta, horregatik, «gatazka demokratikoak gatazka nazionalistak dira eta gatazka nazionalistak gatazka demokratikoak dira» (Azkune, 2018, 34. or.).

Hori guztia kontuan izanda, egungo subiranotasun-aldarriak eta -prozesuak nazionalismo klasikoaren premisetan ardatsu beharrean, esan bezala, gakoa da estatu-egiturei eta demokratizazio-prozesuei erreparatzea (Azkune, 2018). Horrela, kulturak, identitateak eta partikularrak ikergai izateari utziko diote, eta, era berean, nazioaren ordezkari *demos* oinarrian jarritik, ongizatea, berdintasuna eta unibertsalitate izango dira ikergai nagusiak (Azkune, 2018). Hortaz, eskari nazionalistek eskari demokratikoen zentzua edo ulerkerak hartzen dute.

Demokratizazioari dagokionez, horrek erreferentzia egiten dio demokraziaren dimentsio dinamikoari. Hari horri jarraituz, demokratizazioa prozesu politiko bat da, eta, era berean, nazio bat erreproduzitzeko modu bat. Zentzu horretan, demokratizazioak hitz egin dezakegu baldin eta estatuak *demos*aren behar, nahi eta aldarrien arabera gobernatzen badu (Tilly, 2010). Beraz, demokratizazioak gobernuak gizarte-mobilizazioaren eskariak barneratzea eragiten du; hots, *demos*aren eskariak instituzionalizatzea. Ildo horretan, esan bezala, estatu-ahalmena edukitzea eta gizarte-mobilizazioa gertatzea derrigorrezkoa da (Tilly, 2010, Goikoetxea, 2015 eta Zubiaga,

4. Finean, herria da *demos*.

2015). Aipatzekoa da, prozesu bat den aldetik, demokratizazioan aurrerapausoak eman daitezkeen modu berean desdemokratizazioa ere gerta daitekeela.

Aurreko guztia kontuan izanda, Mendebaldeko⁵ estatutik gabeko nazioen kasuan (Katalunia, Eskozia, Quebec, Groenlandia, Euskal Herria, etab.), estatutik gabeko nazioez hitz egin ordez, estrategikoki, estatualitate subalernoaren terminoa erabiltzea planteatzen du Azkunek (2018). Horrela, Spivaken «Can the Subaltern speak?» erreferentzia hartuta (1988), subalernoaren ideia hobesten du, kontzeptu horrek zapal dutako estatuen ahalmen politikoan eztabaida jartzea ahalbidetzen baitu, bere ustez; hau da, botere zentralarekiko zer burujabetza-maila duten aztertzean dago gakoa. Hor, demokratizazioa dago jokoan autorearen arabera (Azkune, 2019). Ulerkera horretatik, argi geratzen da, iraganekoekin konparatuta, prozesu subiranisten ezaugarriak aldatu egin direla, eta, orain, estatuari⁶ edo estatugintzari gehiago erreparatzeaz gain, ongizatearekin erlazionatutako gaiek lehen lerroa hartu dutela. Beraz, Azkuneren hitzetan esateko, «auzi nagusia ez da milaka urteko nazio kulturala babestea, baizik eta komunitate politikoak, estatu subalernoak alegia, zein tresna behar dituen modu demokratikoan gobernatzeko, egungo beharrianen arabera» (2019, 62. or.).

Zentzu horretan, estatu subalernoek gutxieneko erakundetzea izan behar dute, eta, modu berean, estatu subalernoek, ahalik eta gaitasun gehien izateko, estatu-tresna eraginkorrak izatea beharrezkoa dute. Horrez gain, subalerno izateko beste zenbait baldintza ere bete behar dituzte. Alde batetik, estatu zentralarekiko ezberdintzen den demokratizazio-prozesua abiarazi edo abiarazita izan behar dute. Bestetik, proiektu nazional propio bat eduki behar dute (Azkune, 2018). Hau da, estatu subalernoek bertako alderdi politiko, sindikatu eta herri-mugimendu propioak izan behar dituzte⁷, baita legebiltzar eta gutxieneko autogobernu bat ere (Nikolas *et al.*, 2016).

Hain zuzen ere, estatu-egiturekin lotuta, azken hamarkadetako joeren ondorioz, estatuak, oro har, gero eta erabaki-ahalmen baxuagoa dute. Globalizazioaren eta neoliberalismoaren aroan, pribatizazioak eta estatuz kanpoko eragileen nagusitasuna gertatzen ari da (Sassen, 2010). Sassen-ek (2010) prozesu hori ahalbidetzen duten hiru arrazoi identifikatzen ditu. Alde batetik, domeinu pribatuaren handitzea gertatu da, bereziki, 80ko hamarkadatik aurrera. Horrela, bere arabera, zenbait autoritate estatal autoritate pribatu izatera igaro dira. Beste alde batetik, funtzio publikoen pribatizazio eta merkantilizazioaren eraginez, eremu publikoaren eta pribatuaren arteko mugak berregituratu dira, eremu publikoa murriztu delarik. Azkenik, autoreak diotenari jarraituz, politika publikoen egikaritzean interes pribatuei leku eman zaie. Ondorioz, Sassen-en hitzetan, «gaur egun jabari publikoaren

5. Mendebaldeko terminoarekin Europa mendebaldeko herrialdeez, Amerikako Estatu Batuez, Kanadaz, Australiaz eta Zeelanda Berriaz hitz egiten dugu. Guztietan demokrazia liberala gailentzen da, eta, hortaz, logika horren baitan mugitzen dira mugimendu horiek.

6. Kasu honetan, estatua instrumentalismotik at ulertzen dugu; horrela, erlazio sozial gisa ulertuta eta barne biltzen duen konplexutasunari erreparatuta, garaian garaiko estatuaren eta gizarte zibilaren arteko indar-harremanetan arreta jarri, eta horrekin batera, gailentzen diren dinamika sozialak ulertuz eta kontuan hartuz.

7. Alderdi politiko, sindikatu eta mugimendu horiek estatu subalernoan gehiengoa ordezkatzeko dute, nahiz eta estatu zentralean gutxiengoa izan.

baitan hartutako erabakiak, neurri handi batean, merkatuen eta enpresen eragiketa globaletarako beharrezkoa den azpiegitura prestatzera bideratuta daude, bai eta aurreko aroari dagozkion gastu sozialaren berezko erantzukizunak ezabatzerare» (Sassen, 2010, 256. or.).

Horrenbestez, 80ko hamarkadan abiarazitako aro neoliberalaren ondorioz, nazio-estatuaren subiranotasuna murriztuz joan da. Tarte horretan martxan jarri diren politikek interes pribatuak lehenetsi dituzten heinean, eremu guztietan pribatizazioak ekarri dituzte, demokraziarena barne. Hori dela-eta, esan dezakegu, gobernuen erabaki publikoek interes pribatuak hobetsi dituztela gero eta gehiago. Beraz, eskubideak, erabakiak hartzeko ahalmena, erakunde publikoak, osasungintza, hezkuntza, baliabide naturalak, etab. esku pribatuetan (enpresetan, interes-taldeetan, lobbyetan, etab.) jarri dira. Horrek kalteak eragin ditu herritarrengan, herria boteretzen duten mekanismoen pribatizazioarekin herritarrek beren burua gobernatzeko gaitasuna txikitu egin baita (Goikoetxea, 2017).

Ildo beretik, neoliberalismoak bere interesen alde hiru botere nagusiak (legegilea, exekutiboa eta judiziala) ere eraldatu ditu, estatismo autoritarioa indartuz (Azkune, 2016). Poulantzasen (1979) azalpenei jarraituz, estatismo autoritarioa gizarte kapitalisten baitan garatutako estatu forma bat da, zeinetan botere estatuala zentralizatzen den, eta, aldi berean, zenbait askatasun demokratiko murrizten diren. Era horretan, botere exekutiboa indartzen da, botere legegilearen kalterako. Hain zuzen ere, azken botere horretan islatzen da subiranotasun popularra. Halaber, hiru botereen arteko mugak gero eta bereizezinagoak bihurtzen dira, eta, egoera horretan, zuzenbide-estatu mugatuz doa. Hari horri jarraikiz, Brownek (2010) botere exekutiboaren hedapenaz ohartaraztearekin batera, botere judizialean ere arreta jartzen du. Izan ere, gero eta ohikoagoa da auzi politikoak eremu judizialera eramatea eta azken horretan hartzea erabakiak. Hau da, autore honek dioenari jarraituz, auzi politikoak politikotasunaren eremuan eztabaidatu ordez, horiek tribunal judizialen esku uzten dira. Ondorioz, botere legegilea botere judizialaren menpe geratzeaz gain, boterea ematen zaie herri-ordezkaritzarik ez duten erakundeei.

Gobernatzeko era horrek, ordea, «ez du estatua deuseztatzen; aitzitik, pribatu eta neokapitalista bihurtzen du» (Goikoetxea, 2018a, 23. or.). Izan ere, estatuak eztabaida politikoetarako beharrezkoak diren eremu instituzional eta marko diskurtsiboak eskaintzen jarraitzen du, eta lehian dauden indar globalen, nazioz gaindikoen, nazionalen eta tokikoen arteko borrokagune nagusia da (Jessop, 2008). Horregatik, ezin daiteke esan nazio-estatu desagertu denik, nolabait, berrantolatu egin baita, zenbait dimentsio indartuz (botere exekutiboa, etab.) eta, aldi berean, herritarren parte-hartzea era nabarian mugatuz (Goikoetxea, 2017).

Hortaz, une nahasiak bizi ditugu, eta demokraziaren pribatizazioranzko joera agerikoa dela esan dezakegu. Gauzak horrela, subiranotasun popularra birstortzen ari da, herritarrak erabaki ororen subjektu erreal izatearen ideia oinarrian kokatzen delarik (Zubiaga, 2015). Testuinguru horretan ulertu behar dira azken hamarkadako subiranotasun-eskariak, bai estatua duten nazioetan (15-M, Syriza, Occupy Wall Street, etab.) eta bai Mendebaldeko estatu subalternoetan (Eskozia, Katalunia, Quebec, Euskal Herria, Groenlandia, etab.). Horregatik, Azkunerekin bat eginez

(2016), momentua modu estrategikoan irakurriz eta baliatuz, azken hamarkadetako eskaera subiranistek lotura handiagoa dute erabaki politikoak hartzeko ahalmenarekin eta ongizatearekin, identitate nazional historikoaren aldarrikapenekin baino. Laburbilduz, «subiranotasun-eskaria, beraz, autoritate publikoaren eta erabakitze ahalmenaren pribatizazioaren aurreko ondorioa edo erreakzioa izango litzateke» (2016, 38. or.).

4. Burujabetza-prozesuak: definizioa, oinarriak eta tresnak

Burujabetza edo subiranotasuna termino zabala da, eta, eremuaren arabera, ulerkerak ezberdinak hartzen ditu. Kasu honetan, Goikoetxearen definizioarekin bat eginez (2018b), subiranotasuna komunitate politiko batek bere erabakiak, beharrak eta nahiak gauzatzeko duen gaitasuna da, baita bere biziraupena bermatzeko ere. Ondorioz, burujabetzak komunitatearen eta estatuaren arteko erlazioari egiten dio erreferentzia. Izan ere, burujabetza komunitate politiko batek *demos* gisa erreproduzitzeko duen ahalmena da (Goikoetxea, 2018b, 130. or.). Horrela, subiranotasuna estatua dagoenean gertatzen da, estatuaren eta komunitatearen arteko integrazio-prozesu bat gertatzen denean alegia (Hinsley, 1986). Zentzu horretan, subiranotasuna lurralde bateko autoritate gorena da, eta estatua da entitate subiranoa; estatuak botere subiranoa duelarik. Horregatik, subiranotasuna funtsezkoa da estatuak komunitatearen edo *demosaren* legitimazioa eskuratzeko, estatua subiranoa baita gobernatzen duen komunitateak subiranotzat hartzen duen heinean (Hinsley, 1986).

Beraz, Goikoetxearen (2018b) ekarpenarekin jarraituz, burujabetzak nahitaez estatua behar du, herritarren edo komunitatearen eskariak egikaritu ahal izateko ahalmen politikoa duten egiturak alegia. Hain zuzen ere, subiranotasunak komunitatearen eta estatuaren arteko erlazioa artikulatzen du (Azkune, 2016). Hortaz, subiranotasuna ere prozesu gisa ulertu behar dugu, estatuaren eta komunitatearen arteko erlazioaren arabera. Zentzu horretan, demokraziaren pribatizazioa (Goikoetxea 2017) dela-eta, komunitate politikoak gobernatzeko gaitasun politikoa galdu du; hots, burujabetza galdu du. Ildo horretan, egun komunitate hori *demosak* osatzen du, eta ez nazioak, iraganean bezala (Olariaga, 2018).

Gauzak horrela, subiranotasunean sakontzea demokratizazio-prozesua den aldetik, gizarte-mobilizazioaz gain, autogobernu-maila bat izan behar du nazioak nahitaez. Izan ere, mobilizazio sozial indartsua egonik ere, ez badago ahalmen politikoa duen erakunderik, ezinezkoa edo zaila izango da prozesuan aurrera egitea. Hau da, Goikoetxeak (2015) dioenari jarraituz, *demos* mobilizatuaren eskariak egikaritzeko gai diren erakundeak egotea funtsezkoa da. Institutuzio horiek ahalbidetuko dute hezkuntza- eta osasun-sistema propio bat edota sistema judizial propio bat edukitzea, herritarren nahiaren arabera egituratutakoak. Horrela, nazioaren edo estatu subalternoaren biziraupena ziurtatuko da.

Horrez gain, prozesuak zilegitasun demokratikoa izan behar du. Horretarako, herritarrek beren nahia eta borondatea azaldu behar dute; hau da, herritarrek burujabetza-prozesuarekin bat egin, eta estatu zentraletik aldentzeko desira adierazi behar dute. Hortaz, berriz ere, ahalik eta mobilizazio eta aktibazio gehien

eta zabalena lortu behar da, Nikolas *et al.*ek azpimarratzen duten bezala (2016). Horrekin batera, estatu subalternoen erakundeek herritarren borondate eta nahi horiek gauzatu behar dituzte eskura dituzten tresnekin: adierazpen instituzionalak, Estatutuen berritzea, hauteskundeak, etab. Bidea baliabide demokratikoak erabiliz egiteak zilegitasuna ematen du bai barrura begira (herritarren artean adostasun-maila handiagoa lortzeko aukera gehiago baitaude), eta bai kanpora begira, nazioartearen onarpena lortzeko orduan (Nikolas *et al.*, 2016).

Puntu honetara helduta, azpimarratu behar dugu, Mendebaldeko estatu subalternoen burujabetza-prozesuen azken helburua estatu propioa sortzea bada ere, Blasek (2015) dioenari jarraituz, kontuan hartu behar dugu zaila dela Mendebaldean estatu berriak sortzea. Izan ere, historikoki, estatu berriak gerraren eta ezegonkortasunaren testuinguruan sortu dira, batez ere jatorrizko estatua edo estatu zentrala krisian sartu denean (Blas, 2014, 2015). Horregatik, estatu independente bat sortzea edo sezesiorako aukera erreala ematea ahalbidetuko duten testuinguru eta baldintzak sortu bitartean, helburu horren aldeko mugimenduen xedea da ahalik eta burujabetza-esparru gehien eskuratzeko edo irabazteko; hori dela-eta, mugimendu horiek autonomismoa bultzatzen dute (Sorens, 2012). Ikuspuntu horretatik ulertzen da estatutuen edo estatus politikoaren berritzea, estatu zentraletik estatu subalternora eskumenen transferentzia, etab., azken helburua lortzeko, estatu independentea alegia, eman beharreko pausoak direla, gero ikerketaren analisisan ikusiko dugun bezala.

Azken hamarkadetan, gainera, gehiengo demokratikoa sezesioaren alde egotea ere independentzia lortzeko baldintza bilakatu da, Blasek adierazten duenez (2015). Izan ere, prozesuak herritarren aldetik zenbat eta babes handiagoa izan, gero eta handiagoak izango dira estatua modu baketsuan eraikitzeko eta nazioarteko ezagutza eskuratzeko aukerak. Babes hori, argi adierazi behar da, besteak beste, legebiltzarrean —diputatuen gehiengo sezesioaren alde egonik— eta erreferendum batean (Blas, 2015). Zentzu horretan, McAdam, Tilly eta Tarrowren *Dynamics of Contention* (2001) teoriari jarraituz, mekanismo gakoetako bat artekaritzarena da. Izan ere, artekaritzaren bitartez, desmobilizatuak dauden eragileak batzea lortzeaz gain, posizio, eragile eta diskurtso ezberdinak artikulatzen dira, bakarra osatuz.

Gauzak horrela, zilegitasun demokratikoa lortzearen ildotik, sezesioaren planteamendua aldatu egin da: sezesioa nazionalismoen konponbidea izatetik, arazo demokratiko baten konponbide izatera pasa da, Lópezek azpimarratzen duen bezala (2015), herrien eskubidean oinarritzetik herritar guztiek berdintasunean tratatuak izateko eta kontuan hartuak izateko duten eskubidean oinarritzera. Horrela, demokrazia liberaletan sezesioaren justifikazioaren teoriari jarraituz, orain, ikuspuntua teoria nazionalistan baino teoria plebisitarioan kokatzen da. Lehenengoari dagokionez, nazioa jartzen da erdigunean, eta nazio guztiek estatua edukitzeko eskubidea dutela adierazten da. Bigarrenean, ordea, sezesioa printzipio demokratikoen gauzapena dela ulertzen da (López, 2015). Beraz, teoria nazionalistan nazio gutxituen eskubide indibidualak eta kolektiboak lehenesten dira, eta, aldiz, plebisitarioan eskubide indibidualak⁸ (Requejo, 2015).

8. Ildo liberalean kokatzen baita, eta, beraz, eskubide indibidualak bermatzea da helburua.

Ikuspuntu horretatik, azken hamarkadetan, demokraziaren ardatzean kokatua, burujabetzan sakontzeko tresna gisa, erabakitzeko eskubidearen errebindikazioa eta gauzapena gailendu da Mendebaldeko⁹ estatu subalternoetan, hala nola Euskal Herrian, Katalunian, Eskozian edota Quebecen (Corretja, 2015). Gauzak horrela, azken hamarkadetan hedatutako kontzeptua izanik, oraindik ere formulazioan dago, eta, ondorioz, ez dago kontzeptu horren definizio eta ulerkera bat eta bakarra (Alvarez, 2022). Kasu honetan, kategoria politiko berri bezala ulertzen dugu, eta, ildo horretan, erabakitzeko eskubidea, Lópezen (2015, 33. or.) eta Corretjaren (2016, 65-66. or.) definizioei jarraituz, lurraldetutako eta demokratikoki antolatutako komunitate bateko kideen eskubide gisa definitzen dugu, zeinak bertako herritarrei komunitate horren Estatus Politikoa birdefinitzeko borondatea edo estatu propio bat eraikitze borondatea adierazteko aukera ematen dien. Are gehiago, erabakitzeko eskubidea praktikan jartzea, estatusa erabakitzetik harago, eredu sozial, ekonomiko eta politikoz erabaki ahal izatea ere eragiten du (Bengoetxea, *et al.*, 2015). Hau da, erabakitzeko eskubideak herritarren egunerokotasuna baldintzatzen duten erabakietan herritarrek zuzenean parte hartzea ere esan nahi du.

5. Euskal Autonomia Erkidegoa: abertzaletasuna eta instituzionalizazioa¹⁰

Orain arte azaldutako kontzeptu eta teoria-aldaketa horiek guztiak Euskal Herrian ere eragina izan dute. Izan ere, Euskal Estatua, modu batera edo bestera, euskal nazionalismoaren helburua beti izan den arren (Zubiaga, 2012), euskal nazionalismoa aztertuz gero, beraren diskurtsoak testuinguruaren arabera aldatu egin direla ikus daiteke. Alde batetik, XIX. mendearen amaieran Aranak garatutako nazionalismoak arraza zuen oinarri. Gainera, testuinguru kontserbadorea nagusi izanik, erlijioa, arrazarekin batera, beste ardatzetako bat izan zen (Zabalo eta Odriozola, 2017). XX. mendearen erdialdean, aldiz, aldatu egin zen testuingurua, eta, teoria sozialista eta iraultzaileen garapenarekin batera, euskal nazionalismoak arraza baztertu eta hizkuntza jarri zuen oinarrian. Helburu erlijiosoen orde, helburu sozialistak nagusitu ziren. Beraz, euskal nazionalismoa kontserbadorea izatetik ezkerrekoa izatera pasatu zen, momentu historikoak, nolabait, hala behartuta. Azken hamarkadetan, berriz ere, testuinguru orokorra aldatu egin da, eta aldaketa horiek halaber euskal nazionalismoan eragina izan eta izango dute (Zabalo eta Odriozola, 2017). Izan ere, XXI. mendean, paradigma nazionalistan soilik oinarritutako burujabetza-edo sezesio-prozesu batek nekez lortu dezake bere helburua, independentzia edo estatu propioa alegia; gakoa gehiago demokratikoak lortzean datza (Blas, 2014). Horretaz jakitun, euskal nazionalismoan demokraziaren kontzeptua gailenduz joan da (Zabalo eta Odriozola, 2017).

Testuinguru horretan, euskal abertzaletasunari dagokionez, egun, esan dezakegu bi bloke nagusitzen direla alderdi abertzaleen esparruan: EAJ eta EH Bildu. Bi bloke horien artean, bien xedea euskal sistemaren demokratizazioan sakontzea bada ere, bakoitzean estrategia eta helburu ezberdinak gailentzen dira. Alde batetik, EH

9. Mendebaldeko estatu subalternoez hitz egiten dugu, erabakitzeko eskubidea Mendebaldeko demokrazietako estatu liberal demokratikoetan gailendu baita.

10. Sarreran aipatu dugun bezala, gure ikerketak Euskal Herri osoa barne biltzea gustatuko litzaiguke, baina, besteak beste EAEko testuingurua eta baldintzak direla-eta, lurralde horretara mugatuko dugu ikerketa.

Bilduk Espainiako estatutik bereizitako nazioa du helburu. Beste alde batetik, EAJk zeresana izaten jarraitu nahi du Espainiako gobernuan, eta, horregatik, azpimarra autogobernua indartzean jartzen du (Azkune, 2021), gero analisisian berretsiko dugun bezala.

Era berean, instituzionalizazioari erreparatuta, EAEko Estatutuaren oinarriak 1979an¹¹ onartu ziren, Espainiako Konstituzioa baietsi eta urtebetera. Estatutu horretan, Gernikako Estatutua izenez ere ezaguna, Estatutua EAEko autogobernua eratzeke euskarria dela aipatzen da. Horrez gain, EAeri dagozkion eskumen eskusiboak zehazten dira (10. artikulua). Hala ere, Gernikako Estatutua onartu zenetik, Lasagabasterrek esandakoari jarraituz (2016, 221. or.), horrek «praktika gatazkatua» izan du, batez ere eskuduntzei dagokienez. Hain zuzen ere, Estatutuan zehaztutako zenbait eskumen ez dira Estatutik EAEra transferituak izan, eta, beraz, EAEko autogobernuaren esku egon beharko luketen arren, oraindik estatutaren menpe jarraitzen dute, hala nola Gizarte Segurantzaren kudeaketa¹². Egoera hori izanik ere, 45 urte eta gero, 1979ko Estatutua ez da berritu. Alabaina, tartean, hura berritzeko zenbait saiakera egin dira.

Gernikako Estatutuaren lehen erreforma-saiakera Ibarretxe lehendakariaren eskutik heldu zen, 2004an, Eusko Legebiltzarrak Estatutuaren Erreformatarako Proposamena (Ibarretxe Plana izenez ere ezaguna)¹³ onartu zuelarik. Bertan, eskuduntzez eta gainerako gaiez hitz egiteaz gain (hizkuntza, etab.), lehen aldiz agertu zen erabakitzeke eskubidearen kontzeptua. Era horretan, teoria nazionalistaz gain, nazio-izaera aitortzen baita, teoria plebisitarioa ere aintzat hartzen da, herritarren borondatea, erabakitzeke eskubidea, etab. aipatzen baitira (Vizán, 2018). Alabaina, bertan behera geratu zen proposamena, Espainiak ez baitzuen inolako negoziazio-espaziorik zabaldu (Zubiaga, 2015).

Ibarretxe Plana atzera bota zenetik, 2016ra arte ez zaio ekin Gernikako Estatutua berritzeari berriz ere. Hain zuzen ere, urte horretan, gaiari heltzeko Autogobernu Ponentzia eratu zen, alderdi politikoek osatu zutena. Handik bi urtera, 2018an, Autogobernu Ponentzia horren baitan, EAJ eta EH Bilduk testu artikulatu bat garatu zuten¹⁴, erreformatarako zenbait oinarri adostu zituztelarik. Testu horretan, besteak beste, erabakitzeke eskubidea arautu eta lurralde-eredu konfederala ezartzen da. Hala ere, azkenean, oinarri adostuak baziren ere, gerora ez ziren aurrera atera, eta ez zitzaion Gernikako Estatutuaren berritzeari bide eman.

Gaur egun, hasieran aipatu bezala, Autogobernu Ponentzia hori berreskuratzeko asmoa azaldu da berriz ere¹⁵. Izan ere, ez dirudi, epe laburrean sezesio-prozesu indartsurik abiatuko denik (Azkune, 2021), eta, horretarako baldintzak eman

11. Testu osoa hemen eskuragarri: https://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/legedia_euskaraz_e_konstituzio/es_def/adjuntos/Konstituzio-zuzenbidea/Euskal_Herriko_Autonomia_Estatutua.pdf

12. Hemen kontsulta daitezke guztiak: https://www.legegunea.euskadi.eus/webleg00-cnform/eu/contenidos/recursos_tecnico/legesarea_comun/eu_búsqueda/index.html#competencia

13. Testu osoa hemen eskuragarri: http://www.legebiltzarra.eus/ic2/restAPI/pvgune_descargar/default/3d2615fb-8865-4894-89e2-996f77c9869a

14. Testu osoa hemen eskuragarri: <http://www.legebiltzarra.eus/portal/documents/16182/1177674/bt180921-1-baseak-eta-boto-partikularrak.pdf/8bf22ca3-8258-4b7e-b2d7-1edd1819795a>

15. Ideia hau «analisis» atalean azaltzen eta garatzen da sakontasunez.

bitartean, autonomismorako joera nagusitzen da. Hari horri jarrikiz, esan dezakegu, euskal estatu-egiturek ahalik eta gaitasun handiena izateko eta erabakitzeo eskubidea instituzionalizatzeko Estatus Politikoa berritzea beharrezkoa dela.

6. Diseinu metodologikoa

Ikerketaren hasieran zehaztutako helburuak lortu ahal izateko, metodologia kualitatiboa erabili dugu nagusiki. Izan ere, alde batetik, EH Bilduko eta EAJko kide bana elkarrizketatu dugu eta, beste aldetik, Ernaiko eta EGIko pertsona bana. Hala, datu-bilketarako aukeratutako teknika nagusia elkarrizketa sakonarena izan da. Era berean, informazioa biltzeko tresna gidoia izan da. Gidoiari dagokionez, gidoiaren oinarria EH Bilduk eta EAJk 2024ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan argitaratutako gobernu-programak izan dira, bereziki «Estatus Politikoa Berria» atala EH Bildurenean (EH Bildu, 2024) eta «Autogobernua. Ongizatearen sinonimoa» atala EAJrenean (EAJ, 2024a).

Oinarri horretatik abiatuta, eta ikerketaren helburu espezifikoak aintzat hartuta, gidoia bost ataletan banatu dugu: sarrera, edukiak, lehentasunak, estrategia eta Naziometroa. Lehenik, gaiaren aurkezpena egin ondoren, adituen gomendioei jarraituz, gai orokor bat planteatu zaie elkarrizketatuei. Gainera, bi gidoi erabili ditugu: EH Bilduren eta EAJren ordezkari zuzendutakoa eta Ernairen eta EGIn ordezkari zuzendutakoa. Izan ere, analisia egitean informazio guztia berdina sailkatu ahal izateko gehienetan galdera berdinak edo antzekoak egin dizkiegun arren ordezkari guztiei, hainbat kasutan, komenigarria iruditu zaigu gazte-erakundeetako kideei beste zenbait galdera gehitzea.

Horrekin batera, laginaren aukeraketa ikerketaren gaiarekiko egokitasunaren arabera gauzatu dugu; ikergaiak eskatutako beharren arabera alegia (Santiago, *et al.*, 2018). Ildo horretan, parte-hartzaileak aukeratzeko zenbait irizpide ezarri ditugu. Alde batetik, EAERako Estatus Politikoa Berriaren inguruan lanean ibilitako eta lanean jarraitzen duten pertsonak elkarrizketatu ditugu. Gainera, genero-orekari eusteko eta EAEko lurraldeak bere osotasunean ordezkatzeko, bi emakume eta bi gizon, eta hiru gipuzkoar eta arabar bat elkarrizketatu ditugu¹⁶.

Hurrengo taulan elkarrizketatuen profilaren laburpena adierazten da:

1. taula. Elkarrizketatuen profila.

	Alderdia	Adina	Generoa	Lurraldea
Elkarrizketa 1 (E1)	EH Bildu	45	Gizona	Gipuzkoa
Elkarrizketa 2 (E2)	Euzko Alderdi Jeltzalea (EAJ)	55	Gizona	Gipuzkoa
Elkarrizketa 3 (E3)	Enai	23	Emakumea	Gipuzkoa
Elkarrizketa 4 (E4)	Euzko Gaztedi-EGI	23	Emakumea	Araba

Iturria: norberak egina.

16. Hasiera batean, Bizkaiko ordezkariaren bat elkarrizketatzea helburu baguen ere, ez genuen lortu, besteak beste, Eusko Legebiltzarreko hauteskunde (2024) osteko garaian egin baitziren elkarrizketak eta ordezkariak lanez gainezka egon ziren.

7. Analisia

7.1. Gaiaren kokapena: burujabetza politikoaren ulerkera

Burujabetza, esan bezala, termino zabala da, eta, eremuaren arabera, ulerkera aldatu daitekeela jakinik, kasu honetan, ezaguera zehazte eta mugatze aldera, burujabetza politikoaz hitz egingo dugu. Gauzak horrela, elkarriketatu ditugun alderdi politiko eta gazte-erakunde abertzaleen ordezkari guztiek erlazionatu dute subiranotasun politikoa erabakitzeko eskubidearekin edota lurraldearen kontrola izatearekin, eta, zentzu horretan, lau ordezkariak beharrezkotzat eta ezinbestekotzat jo dute. Ildo horretan, laurak diotenari jarraituz, Euskal Herriaren biziraupena ahalik eta subiranotasun handiena edukita bakarrik lortuko da, horrela soilik izango baitituzte euskal erakundeek iraunkortasun hori bermatuko duten politikak aurrera eramateko gaitasuna eta egiturak.

Hala ere, EAJko alderdikideak erabakitzeko eskubidearen subjektu gisa nazioa kokatu du, euskal nazioa alegia. Nolabait, EAJko kideak subiranotasuna Estatus Politikoa erabakitzearekin erlazionatu du (E2). Ildo horretan, EGIko kideak irakurketa berdina egin du (E4). Aldiz, EH Bilduko kargudunak bi dimentsio ezberdindu ditu: burujabetza nazionala eta burujabetza herritarra. Lehenengoari dagokionez, Estatus Politikoa erabakitzearekin lotzeaz gain, ulertzen du Euskal Herriko lurraldeen —Nafarroako Foru Erkidegoa, Euskal Hirigune Elkargoa eta EAE— arteko harremanen nolakotasuna hautatzeko aukera eta eskubidea ere badela. Bigarren esanahiarekin, erabakiak herritar bakoitzaren esku jartzeari eman dio garrantzia, eskubide hori nazioaren osotasunari esleitu beharrean (E1). Azkenik, Ernairen ordezkariak burujabetzak ez duela definizio bat eta bakarra azpimarratu du, eta, ildo horretan, gai honi dagokionez, burujabetza lurraldearen kontrola izatearekin erlazionatu du gehienbat. Gainera, bere ustez, kontrola izate horrek nahitaez «eskatzen du lurralde edo estatu baten barruan egon daitezkeen botere gune eta egitasmoetan burujabe izate nahi horren hautua berrestea» (E3).

Horrela, bada, EAJko eta EGIko kargudunek, oro har, subiranotasuna nazioaren edo lurraldearen erabakitzeko eskubideari lotuta azaldu duten bitartean, EH Bildukoak eta Ernaikoak ikuspegi edo definizio zabalagoa eman dute, nazioaren erabakitzeko eskubideaz harago doana eta herritarren parte-hartzea ere barne hartzen duena eztabaida eta deliberamendu politiko orotan.

7.2. Akordio-garaia: momentu politikoaren irakurketa

Aurreratu bezala, lau elkarriketatuek azpimarratu dute burujabetza edota erabakitzeko ahalmenaren beharra eta garrantzia, are gehiago bizi dugun momentu honetan. Munduaren egoeraren analisi ezkorrean bat datoz alderdi politiko abertzaleetako eta gazte-erakunde abertzaleetako kideak. Alde batetik, EH Bilduren ordezkariaren ustez, «aro-aldaketa» bete-betean egonik, askotariko krisi eta arazori aurre egin beharko diegu herri gisa (E1). Alabaina, EH Bilduko kidearen ustez, EAEk zein Euskal Herriak bere osotasunean¹⁷ ez du tresna nahikorik erronka horiei behar

17. EH Bilduko kideak, jakinik lan hau EAE n zentratzen dela, gehienbat hor jarri du begirada, baina une oro Euskal Herria bere osotasunean —zazpi lurraldeak— presente eduki du, noizbehinka euskal lurraldeen konparazioak eginez.

bezala erantzun ahal izateko, eta, horregatik, gaitasuna izateko, burujabetza-maila handiagoa izatea beharrezkoa dugula uste du (E1). Beste alde batetik, EAJren ordezkariak, 2024ko Europako Parlamenturako hauteskundeetan jasotako emaitzak gogoraraziz¹⁸, demokraziaren krisiaz hitz egin du, eta krisi-egoera horietan estatuek erregresio- edo atzerakada-prozesuak martxan jartzen dituztela ohartarazi digu politikariak (E2).

Hori nazioarteko testuinguruaren analisiari dagokionez, baina begirada Espainia-ko estatuan eta EAEn jarrita, ordezkarien ikuspuntuak bestelakoak dira. Izan ere, EH Bilduren eta Ernairen ordezkariak Estatutik Berria edo burujabetzan sakontzeko aurrerapausoak emateko agertoki aproposa dagoela uste dute; EH Bilduko kidearen hitzetan, «urrats kualitatibo bat eman ahal izateko modukoa» (E1). Gainera, Ernaiko gaztea harago doa, eta Ernairen ordezkariak erronka gisa jarri du espazio ezberdinetatik prozesu independentistara ahalik eta jende gehien batzea. Horrekin batera, azken ikasturtearen errepaso egin du kideak eta Greba Feminista Orokorra¹⁹, euskararen kontrako oldarraldia salatzen manifestazio jendetsua²⁰ edota Korrika²¹ jarri ditu «balio abertzale eta independentista batzuen baitan Euskal Herria sinbolizatzen eta osatzen duten» egitasmoen adibide gisa (E3). Horrez gain, nolabait «idealizatutako» Euskal Herriarekiko kritiko agertu da Ernaiko kidea; maiz uste dugunaren kontra, Euskal Herria ez dagoela mundu-mailan geratzen ari diren joerez salbu adierazi du Ernaiko gazteak (E3). Horregatik, herrigintzatik batez ere, horri buruzko hausnarketa zabaldu behar dela uste du, eta, era berean, Euskal Herriaren esparruan kokatzen diren eta bertatik jarduten duten mugimendu politikoak balioan jarri ditu Ernaiko kideak (E3).

Horrekin batera, Espainiako estatuari dagokionez, EH Bilduren eta Ernairen ordezkarien ustez, Espainiako estatuaren egoera berezia da. EH Bilduko kidearen hitzetan, jauzi bat ematen saiatzeko unea da, lehen aldiz gobernu zentralak irauteko Kataluniako, Euskal Herriko eta Galiziako subiranisten edo independentisten beharra duelako, eta horrek indar-harremanak erabat aldatu dituelako (E1). Ernaiko kideak egoera horri «aukera-leiho» deitu dio, eta aukera hori ahalik eta azkarren baliatu behar da, bere ustez, edozein momentutan «itxi» daitekeelako (E3). Puntu horretan, arazo bat identifikatu du Ernaiko elkarrizketatuak, batez ere alderdiei dagokiena: ez dira gai, haren esanetan, Madrilera herri modura joateko. Hau da, Madrilera gehiengo abertzale eta subiranista ordezkatzeko duen herri-mandatu bat eraman behar da, beraren hitzetan, eta hori gaur gaurkoz ez da gertatzen ari (E3). EH Bilduko kargudunak ere ideia horrekin bat egin du eta azpimarratu du alaitik akordio zabalena lortzen saiatu behar direla Madril ahots bakarrarekin mintzatu ahal izateko (E1).

18. Frantziar, Italian, Poloniar, Hungariar, Austriar, Belgikar eta Alemaniarrak, adibidez, alderdi ultraeskuindarrek hauteskundeak irabazi edo gorakada nabarmena izan zuten.

19. Euskal Herrian egin den lehen Greba Feminista Orokorra izan zen, 2023ko azaroaren 30ean, «zaintza-eskubide kolektiboaren alde» lelopean. Ikus: <https://denonbizitzakerdigunean.eus/>

20. 2023ko azaroaren 4an manifestazio jendetsua egin zen Bilbon, Euskararen Kontseiluak deituta, Hego Euskal Herrian euskararen normalizazioaren aurka jasotako epaiak salatzen. Ikus: <https://kontseilua.eus/oldarraldia/a4-manifestazioa/>

21. Bi urtean behin Euskal Herri osoa zeharkatzen duen ekimena da, AEKK antolatuta. Euskal Herriko hainbat herri zeharkatzen dira, euskara sustatzeko eta euskaltegiarako dirua biltzeko helburuarekin. Ikus: <https://www.korrika.eus/eu/>

Abertzaleen batasunaren hariari jarraituz, EAJko alderdikideak herriaren gara-pena bermatuko duen barne-estrategia baten beharraz hitz egin du. Izan ere, kasu honetan, EAJren ordezkariak ez du uste Espainiako estatuan inoizko auke-rarik onenaren aurrean gaudenik, aipatutako demokraziaren krisiak espainiar zentralizazioaren joera areagotzea ekarriko baitu, haren iritzian, euskal erakundeen kaltean (E2). Horrez gain, burujabetzaren bidean oztopo nagusia Espainiako Konstituzioa²² dela dio EAJko kideak. Horregatik, haren aburuz, Espainiako estatuan negoziatzen jarraitu beharra dago, baina gakoa da euskal herrigintzan eta naziogintzan barne-estrategia egituratzea. Beraren esanez, estrategia hori aber-tzaleen arteko elkarlanean oinarritu behar da nahitaez (E2). Haatik, EAJko kideak ez dio inolako erreferentziarik egin Eusko Legebiltzarrean gehiengoa subiranista eta abertzale izateari. EGIren ordezkariak, bere aldetik, EAJk Espainiako Gobernuarekin gauzatutako negoziazio, akordio eta lorpenak azpimarratu ditu, horietan sakontzea eta bide horretatik jarraitzea estrategikoa dela argudiatuz (E4). Gainera, Eusko Legebiltzarrean finkatu den argazki berriak —abertzaleen gehiengoarekin— Estatu-tuaren eztabaidari heltzeko bide eman behar diola uste du, eta, berriz ere, EAJk espektro politikoko alderdi politiko guztiekin duen negoziatzeko gaitasuna agerian jarri du (E4).

7.3. EAErako Estatus Politiko Berriaren eztabaida: edukiak

Gauzak horrela, prozesu subiranistan sakontzeko, Gernikako Estatutuaren erreforma jomugan jarri dute alderdi politiko zein gazte-erakunde abertzaleetako kideek. Azken batean, estatutu horrek ahalmen politikoak ematen dizkie euskal erakundeei gaur-gaurkoz eta, hortaz, funtsezko arau-oinarriak egituratzen dituela uste dute elkarriketatu ditugun kide guztiek.

Hori esanda, EH Bilduren ordezkariak argi utzi du haiek independentistak direla eta azken helburua Euskal Errepublikak eratzea dela; hots, Euskal Estatu propioa eraikitzea. Alabaina, kontziente da bide hori urratsez urrats egin behar dela, estatu propioa ez baita egun batetik bestera sortuko, haren arabera. Horregatik, estrategikoki, haren hitzak erabiliz, «gakoa da egunetik egunera euskal eskalan erabaki-ahalmen, botere edo burujabetza-maila gehiago pilatzea» (E1). Era berean, EAJren ordezkariak ere Estatus Politiko Berria premiazkoa dela uste du, baina aurretik egin beharreko lehen lana Gernikako Estatutu hori osorik betetzea da. Zeren, haren hitzetan, «1979ko Estatutu horren gainean eraikiko dugu berria» (E2). Horrenbestez, EAJko kidearentzat garrantzitsua da falta diren eskumenak Espainiako estatutik EAEra transferitzea, tartean badaudelako zenbait oso inportanteak direnak, hala nola gizarte-segurantzaren kudeaketarena (E2).

Abiapuntu horretatik, EAErako Estatus Politiko Berriaren edukiei dagokienez, bai EH Bilduren ordezkariak eta bai EAJren ordezkariak zenbait puntu funtsezkotzat jo dituzte, beheko taulan ikus dezakegunez.

22. Testu osoa hemen eskuragarri: https://www.ivap.euskadi.eus/contenidos/informacion/legedia_euskarak_z_e_konstituzio/eu_def/adjuntos/Konstituzio-zuzenbidea/Espainiako_Konstituzioa.pdf

2. taula. EAerako Estatus Politiko Berrian agertu beharreko elementuak.

EH BILDU	EAJ
Nazio-aitortza	Nazio-aitortza
Erabakitzeako eskubidea	Erabakitzeako eskubidea
Harreman-eredua aldatzea	Aldebikotasuna
Berme-sistema eraginkorra (blindajea)	Aniztasuna errespetatzea
Maila konpetentziala handitzea	Europar presentzia

Norberak egina. Iturria: elkarrizketak (E1 eta E2), EAJ (2024a).

Beraz, nazio-aitortzan eta Espainiako estatuarekiko harreman-eredua aldatzean, aldebikotasun-harremana finkatuz, bat datoz alderdi abertzaleetako kargudunak. Hari horri jarraikiz, bi ordezkariak Kontzertu Ekonomikoaren funtzionamendua jarri dute adibide eta eredu bezala, antzeko Kontzertu Politikoa proposatuz. Horrela, orain arte ez bezala, desadostasunak egotekotan, ez litzateke Espainiako estatuaren erabakia nagusituko. Horrez gain, eskumenak handitu eta horiek bermatzea edo blindatzea ere garrantzitsutzat jo dute, orain arte Espainiako estatuak aurrera eramandako Gernikako Estatuaren aurkako higadura-prozesua ekiditeko (E1 eta E2).

Hala ere, aipatzekoa da nazio-aitortzaren kasuan, EAJko kargudunak Euskal Herria terminoa Euskadirekin berdindu duela, zeren, haren hitzetan «gauza bera dira. Euskadi ez da komunitate autonomoa, baizik eta Arana Gorik jartzen duen nazio kontzeptua (“euzkotarren aberria euzkadi da”)) (E2)²³. Nazio-aitortza horrekin batera, haren ustez, euskal subjektu politikoa aintzatetsi beharko da (E2).

Horrez gain, erabakitzeako eskubidea erdigunean jarri dute bi politikariek. Ildo horretan, esan bezala, EH Bilduko kideak hiru funtzio atxikitu dizkio erabakitzeako eskubideari: 1) Estatus Politikoa erabaki ahal izateko bidea, 2) euskal lurraldeen arteko harremanak arautzeko eta antolatze bidea eta 3) politika publiko guztiak erabaki ahal izateko formula. EAJren ordezkariak, bere aldetik, erabakitzeako eskubidea, nazio-ikuspegitik irakurtzen du, Euskal Herriaren eskubide historikoak erabat gauzatzearekin erlazionatzen baitu (E2). Gainera, erabakitzeako eskubidea egikaritzeko formula zehaztu behar dela uste du EAJko kargudunak (E2), eta, hari horretatik jarraikiz, EH Bildukoak ere tresna hori instituzionalizatzea defendatu du, adostasuna erdigunean jarriz. Bere aburuz, adostasun horrek halabeharrez unean uneko euskal gizartearen gehiengoaren borondateari erantzun behar diola gehitu du politikariak, eta legea ezingo da borondate horren muga izan inondik inora haren esanetan (E1).

Ernairi eta EGIri dagokienez, horien ordezkariak ez dituzte alderdi politiko abertzaleek bezain definituta Estatus Politiko Berrian agertu beharreko kontzeptuak. Gauzak horrela, Ernaiko kidearentzat «estatus berri horretan bataila dago ahalik eta

23. Ikus EAJren Estatuak (2020): «EAJ-PNVk Euzkadi du aberri, nazio eta lurralde; lurralde hori Pirinioetako bi aldeetara zabaltzen da, eta berean euskal herria bizi da» (3. Printzipio orokorra). <https://www.eaj-pnv.eus/eu/adjuntos-agiriak/20073/pdf/aberri-estatuak-2020>

burujabetza gehien lortzen». (E3). Ildo horretan, haren esanetan, Estatus Politiko Berriaren baitan zehaztuko diren ardatzek gaur egungo egoera politikoari erantzun behar diote eta norbanakoen beharrak eta behar kolektiboak ase. Horrela soilik lortuko baita, haren iritziz, jendeak prozesuarekin bat egitea eta prozesuaren parte sentitzea (E3). EGLren ordezkariak ere gizartearen babesa azpimarratu du, eta horren neurgailu bezala erabakitzeak eskubidea defendatu du. Hots, haren ustez, Estatus Politiko Berriaren inguruan herritarren iritzia eta ahotsa entzuteko kontsultak egitea beharrezkoa da. Horrez gain, prozesuaren zilegitasun demokratikoa balioan jarri du EGLko kideak (E4).

7.4. Estatus Politiko Berria garatzeko bide-orria: negoziazioak eta talkak

Behin edukiak definituta, Estatus Politiko Berria lortze bidean, lehenik eta behin, lau elkarrizketatuek adierazi digute beren azken helburua Euskal Estatua lortzea dela, baina, eta honetan ere guztiak bat datoz, pausoz pauso egin behar den prozesu luzea izango dela nabarmendu dute. Zentzu horretan, prozesuaren lehen pausoa abertzaleen arteko akordioa dela adierazi dute lau ordezkariak. Hala ere, ez dute akordio hori abertzaleen artera murrizten, ahalik eta akordio zabalena lortzen saiatu behar direla uste dute alderdi abertzaleetako politikariek. Laburbilduz, honako hauek dira aurrera begirako bide-orrian eman beharreko pausoak, EH Bilduren eta EAJren ordezkarien ustez: lehenik eta behin, alderdi politiko eta gizarte zibileko eragileen artean ahalik eta akordio zabalena lortzea eta akordio horrek Legebiltzarrean gehiengo absolutua eskuratzea; bigarrenik, hitzartutako kontsulta loteslea egitea, jendarteak akordioa berresten duela ziurtatzeko. Behin pauso horiek emanda, Espainiako estatuarekin negoziazioa abiarazi beharko litzateke. Beraz, prozesuak zilegitasun demokratiko izango luke, eta, hain zuzen ere, horretan azpimarra jarri dute bi politikariek.

Adierazi bezala, abertzaleen arteko akordioa jomugan jartzen dute guztiek. Zentzu horretan, garatu eta egikaritu beharreko hiru alderdi klabe identifikatzen ditu EAJko politikariak: adostasun kontzeptuala, estrategia bateratua eta estrategia politikoa. Hala ere, 2018ko oinarri adostuen akordioaz galdetzean, EH Bilduko kargudunak gaur egun eztabaida sustatzeko abiapuntu gisa kokatu du (E1), baina EAJko elkarrizketatuak, aldiz, guztiz baztertzen ez badu ere, ez du 2018ko akordio hori eztabaidaren abiapuntu edo oinarri gisa jarri. Izan ere, EAJko kidearen ustez, gakoa borondatean datza: «Abertzaleen artean borondatea badago, gero bideak topatuko dira, baina borondatea behar da, benetako borondatea» (E2).

Puntu honetan, aipatu behar dugu ahalik eta akordio zabalenak lortzea guztien xedea bada ere, aurretik gertatu bezala, oraingoan ere alderdien artean zenbait talka gertatzea ezin dugula baztertu²⁴. Horregatik, elkarrizketatuei suerta daitezkeen ezberdintasun horiei buruz galdetu diegu. Elkarrizketatu batek ere ez du talka baztertu; hau da, ordezkari guztiek onartu dute alderdien arteko nolabaiteko liskarrak eta ez-ulertuak egongo direla. Kasu honetan, EAJko kidearen ustez, sortuko den

24. Besteak beste, PSE-EEK jada adierazi du ez duela erabakitzeak eskubidea onartuko. Ikus: <https://www.elcorreo.com/elecciones/vascas/andueza-advierte-pnv-bildu-derecho-decidir-linea-20240418131820-nt.html>

talka horri «tentsio instituzionalarekin eta tentsio demokratikoarekin» erantzun behar zaio (E2). Gainerako elkarriketatuak dagokienez, kasu honetan, EH Bilduren eta EGIren ordezkariak bat datoz: negoziatio sakon baten bidez PSE-EEk, batez ere, bere jarrera aldatuko duela uste dute. Hala ere, bi kide horiek ez dute asko sakondu horretan.

8. Ondorioak

Lehenik eta behin, ikerketa honen lehenengo helburu espezifikoarekin lotuta, burujabetza politikoaren ulerkeraren ingurukoa, EH Bilduren eta Ernairen ordezkariak EAJrenak eta EGIrenak baino ikuspegi zabalagoa dutela ondorioztatu dugu. Izan ere, EAJko eta EGIko kideek burujabetza politikoa EAEren erabakitzeko eskubidearekin erlazionatzen dute, Estatus Politikoa erabaki ahal izatearekin alegia. Aldiz, EH Bilduko eta Ernaiko elkarriketatuak harago doaz eta Estatus Politikoa erabakitzeko eskubidean oinarritzeaz gain, herri-burujabetzan ere azpimarra jartzen dute. Horrela, estatuaren edo estatu-egituren eta komunitatearen edo herriaren arteko erlazioari garrantzia ematen diote, subiranotasuna herritarrek erabaki politiko orotan zeresana izatea eta parte hartzea ere badela azalduz. Hots, herritarrek politika publiko guztien subjektu izatearen ideia defendatzen dute EH Bilduko eta Ernaiko kideek. Hortaz, azken horiek erabakitzeko eskubidearen irakurketa edo aplikazio nolabait osoa egiten dute, Estatus Politikoa erabakitzeaz gain, herritarren parte-hartze zuzena defendatzen baitute.

Bigarrenik, bigarren helburu espezifikoarekin lotuta, hots, une politikoaren irakurketari lotuta, lau ordezkariak uste dute EAEren subiranotasun-maila murriztuz joan dela botere zentralarekiko, hots, Espainiako Gobernuarekiko. Ildo horretan, azpimarratu dute EAEk ez duela gaitasun politiko nahikorik egungo beharrei eta erronkei aurre egiteko, eta, are gutxiago, egungo krisiaren eta ezegonkortasunaren testuinguruan. Halaber, EH Bilduko kideak subiranotasun-aldarriak neoliberalismoak eta globalizazioak eragindako momentuari erantzuteko eskari gisa ulertzen ditu. Horrenbestez, EH Bilduko alderdikidearen aburuz, Estatus Politikoa Berria ezinbestekoa da egungo egoera ezberdinei aurre egiteko.

Horrekin batera, Espainiako estatuko eta EAEko egoerari dagokionez, EH Bilduren eta Ernairen ordezkariak aurrerapausoak emateko baldintza eta une guztiak aprobetxatzearen alde agertzen dira eta, horregatik, Espainiako estatuan eragiteko aukera ezin dutela galdu diote. Haatik, EAJko kideak ez du berdina pentsatzen, ez baitu konfiantza askorik adierazten Espainiako estatuarekiko, eta horren aurrean EAEn indarrak pilatu behar dituztela uste du. Zentzu horretan, abertzaleen arteko batasunari berebiziko garrantzia eman diote lau ordezkariak.

Hirugarrenik, Estatus Politikoa Berriari buruz dituzten iritziei eta proposamenei dagokienez, finean edukiei dagokienez (bigarren helburu espezifikoak), printzipioz, bi alderdi abertzaleen ordezkariak bat egiten dute gutxieneko zenbait puntutan. Alde batetik, nazio-aitortza ezinbestekotzat jotzen dute. Beste alde batetik, erabakitzeko eskubidea elementu zentral gisa definitzen dute EH Bilduko eta EAJko kideek; hots, bi politikariek aldarrikatzen dute Estatus Politikoa Berriak erabakitzeko eskubidea

instituzionalizatu eta arautu behar duela nahitaez. Gazte-erakunde abertzaleek ez dituzte alderdiek bezain zehaztuta edukiak, baina bi ordezkari gazteek ere erabakitzeo eskubidea erdigunean jartzen dute.

Horrez gain, estatu zentralarekiko harremanak berdinetik berdineran izan behar direla defendatzen dute, benetako alde biko harremana ezarriz. Zentzu horretan, Kontzertu Ekonomikoaren antzeko sistema ezartzea proposatzen dute alderdi abertzaleetako bi kideek. Halaber, lurralde-antolaketa dagokionez, eredu konfederalaren alde adierazten dira bi politikariak. Hala ere, EH Bilduko alderdikideak etengabe du Euskal Herria bere osotasunean presente, eta EAJkoak, ostera, EAEra mugatzen da gehienbat, horri zentraltasun osoa eskainiz. Horregatik, EH Bilduren ordezkariak hiru euskal lurraldeen artean koordinazioa eta harremana egotea funtsezkoa ikusten du, eta EAJrenak, ordea, ez du ideia horretan askorik sakontzen.

Iritzi eta posizioekin jarraituz, lau elkarrizketatuek funtsezkotzat hartzen dituzten kontzeptuei erreparatuta, ondoriozta dezakegu EAErako Estatus Politiko Berria teoria plebisitarioaren barruan kokatzen dutela lau ordezkariak, erabakitzeo eskubideari zentraltasuna emanez. Aitzitik, naziotasuna ez dute guztiz alboratzen. Izan ere, zenbaitetan nazioa subjektu gisa aldarrikatu dute elkarrizketetan zehar lau elkarrizketatuek.

Illo horretan, lau ordezkariak Estatus Politiko Berria eta burujabetza gehiagoren beharra, identitate nazional historikoarekin baino, gehiago lotzen dute erabakitzeo ahalmen politikoarekin eta ongizatearekin. Hots, nolabait, gai honi dagokionez, burujabetza-aldarriak gizartearen ongizatean oinarritzen dituzte. Horrekin batera, lau elkarrizketatuek estaturik gabeko nazioez hitz egiten jarraitzen duten arren, gure ustez, funtsean, estatu subalternoaren kontzeptuaren (Azkune, 2018) oinarrietan zentratzen dira burujabetzaz hitz egiten dutenean, estatu-egituren ahalmen politikoan alegia.

Laugarrenik, aurrera begirako estrategiari dagokionez, EH Bilduren, EAJren, Emairen eta EGIren ordezkarien helburua independentzia edo Euskal Estatua lortzea den arren, urratsez urrats egin beharreko prozesu luzea dela onartu dute guztiek. Gainera, gaur gaurkoz horretarako baldintzarik ez dagoela jakitun dira eta, horregatik, Sorensen (2012) teoria berretsiz, nolabait autonomismoa bultzatzen dute ahalik eta subiranotasun-esparru gehien lortzeko. Hain zuzen ere, estrategia edo logika horren barruan kokatzen dute lau elkarrizketatuek Estatus Politiko Berriaren eztabaida eta beharra.

Hari horretatik jarraikiz, lau kideek badakite Estatus Berrirako prozesuak eta prozesu subiranistak, oro har, legimitate demokratikoa izan behar dutela, Nikolas *et al.*ek (2016) adierazitakoarekin bat eginez. Zentzu horretan, EAErako Estatus Politiko Berriari dagokionez, ahalik eta adostasun zabalena lortzea da alderdi abertzaleen ordezkarien helburua, betiere, erabakitzeo eskubidea erdigunean jartzen dutelarik. Adostasunarekin jarraituz, denek nabarmendu dute garrantzitsua dela erabakitzeo eskubidea Espainiako estatuarekin hitzartzea; hau da, ez dute aurreikusten prozesua aldebakartasunez aurrera eramatea. Testuinguru horretan,

gogoan dute Katalunian gertatutakoa, batez ere Ernaiko eta EGIko kideek. Gainera, gizartearen dimentsioa ez dute albo batera uzten, Estatus Politiko Berriak, besteak beste, eragile sozialen beharrak kontuan hartu behar dituela uste baitute alderdi abertzaleetako kargudunek eta, politikarien aburuz, Estatus Politiko Berri hori arabarrek, bizkaitarrek eta gipuzkoarrek berretsi behar dutelako. Hari horretatik tiraka, Ernaiko kidea da gizarte-mugimenduaren garrantzia etengabe presente duena. Izan ere, gehiengo sozialak artikulatzearen beharraz jakitun da Ernairen ordezkaria, eta, horregatik, prozesu subiranistara ahalik eta jende gehien batzea erronka gisa markatu du, nolabait, McAdam, Tilly eta Tarrowek (2001) adierazitako artekaritzaren mekanismoari jarraituz.

Horrekin batera, EH Bilduko eta EAJko alderdikideek uste dute abertzaleen arteko akordioa funtsezkoa dela aurrerapausoak emateko. Hain zuzen ere, ahal den akordiorik zabalena defendatzen duten arren, praktikan aurreikusten dute zaila izango dela hori lortzea, ez baitute uste PSE-EE edo ezker konfederala zenbait elementurekin ados egongo direnik (erabakitze eskubidea, etab.). Beraz, horren aurrean abertzaleek bat egitea beharrezkoa ikusten dute alderdi politikoen ordezkariak.

Aurreko ideiarekin lotuta, EHBilduko kideak ez bezala, EAJko kideak ez du aipatzen 2018an bi alderdiek Estatutua berritzeko lortutako akordioa, nahiz eta, 2018ko akordioak funtsezkotzat definitzen dituzten elementuak edo edukiak barne biltzen zituen: erabakitze eskubidea, lurralde-eredu konfederala, aldebiko harremana, kontzertu politikoa, etab. Gauzak horrela, neurri batean, EAJren ordezkaria nolabait kontraesanean jausten da abertzaleen arteko akordioa defendatzean eta erabakitze eskubidea edo harreman-ereduaren aldaketa beharrezkotzat jotzean, ez baitu hori guztia hasieratik jasotzen duen 2018ko akordioa adibide eta mugarri gisa jartzen.

Bukatzeo, helburu espezifikoetatik at, Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan (2024) jasotako emaitzek nolako ondorioak eragingo dituzten ikusi beharko dugula adierazi nahi dugu azken ondorio gisa. Zeren, bi alderdi abertzaleen arteko lehia handitu dela esan daiteke, eta, momentu honetan, EH Bildu gero eta hurbilago dago lehen indarra izateko eta EAJren urteetako nagusitasuna kolokan jartzeko. Beraz, testuinguru horretan, alderdiaren interesak herriaren interesen gainetik jartzeko arriskua dago. Izan ere, alderdiak hauteskunde logikan kokatzen badira, hurrengo urteetan ahalik eta bozka gehien erakartzeko estrategia garatuko dute, eta horrek, agian, oztopatu edo zaildu egingo du bi alderdien arteko akordioak lortzeko ibilbidea. EH Bilduk gai honetan Herri gisa jarduteko konpromisoa agertu du, eta ez alderdi bezala (EH Bildu, 2024), baina kontuan hartu beharko da hauteskunde-lehiak prozesuan izango duen eragina. Hain zuzen ere, aukera duten heinean, alderdi abertzaleen ordezkariak etengabe nabarmentzen dituzte haien arteko tirabirak eta desberdintasunak. Ernaiko eta EGIko kideek ere bide berari jarraitzen diote, EAJ edo EH Bildu kritikatu hurrenez hurren. Hortaz, nahiz eta EAJko Estatus Politiko Berrian eta, oro har, prozesu subiranistan aurrera egiteko gakoa alderdi abertzaleen edo esparru abertzalearen arteko bat-egitea izan, gure ustez, ez dirudi adostasun edo bat-egite hori gertu dagoenik edo nahitaez gertatuko denik.

9. Erreferentziak

- Alvarez, Amalur (2022). Nuevas fórmulas de gestión de los conflictos territoriales de soberanía. La juridificación de derecho a decidir. *Clivatge*, 10. <https://revistes.ub.edu/index.php/clivatge/article/view/39013>
- Amurrio, Milagros (2006). Las mujeres en el proceso generizado de construcción de la nación vasca. *Cuadernos de Historia Contemporánea*, 28, 119-134. <https://revistas.ucm.es/index.php/CHCO/article/view/CHCO0606110119A>
- Azkune, Jon (2016). Democracia, soberanía y populismo en la Unión Europea: la emergencia de la izquierda independentista escocesa. *Clivatge. Estudios y Testimonios Del Conflicto Y El Cambio Social*, 4, 31-60. <https://revistes.ub.edu/index.php/clivatge/article/view/15880>
- Azkune, Jon (2018) *Can the subaltern states speak? Estatuaren eraldaketa eta burujabetza eskaerak Katalunian, Euskal Herrian eta Eskozian* [Doktorego-tesia]. Euskal Herriko Unibertsitatea. <https://addi.ehu.es/handle/10810/28966>
- Azkune, Jon (2019). ¿Pueden hablar los estados subalternos?. *Erria Aldizkaria*, 4, 53-63. <https://erria.eus/pdf/ERRIA4.pdf>
- Azkune, Jon (2021). ¿Naciones sin Estado o estatalidades subalternas? Análisis del nacionalismo contemporáneo desde el caso vasco. REAF-JSG, 33, 59-116. <https://raco.cat/index.php/REAF/article/view/392172/485411>
- Bengoetxea, Joxerramon; Goikoetxea, Jule, eta Zubiaga, Mario (2015). Erabakitzeo Eskubidea eta Praktika Demokratikoa: Zer dago gure esku? *Riev Cuadernos*, 11, 305-344. <https://www.eusko-ikaskuntza.eus/es/publicaciones/erabakitzeo-eskubidea-eta-praktika-demokratikoa-zer-dago-gure-esku/art-24268/>
- Blas, Asier (2014). Eskozia, Katalunia eta Euskal Herria. *Argia*. <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2416/sezesio-prozesuak-konparaturik>
- Blas, Asier (2015). Sezesionismoa eta erabakitze eskubidearen prezioa: Desanexioaren paradigma merkatze saiakera gisa. *Riev Cuadernos*, 11, 256-283. Eskuragarri hemen: <https://www.eusko-ikaskuntza.eus/es/publicaciones/sezesionismoa-eta-erabakitze-eskubidearen-prezioa-desanexioaren-paradigma-merkatze-saiakera-gisa/art-24270/>
- Brown, Wendy (2010). Ahora todos somos demócratas. In Giorgi Agamben, Alain Badiou, Danile Bensaid, Wendy Brown, Jean-Luc Nancy, Jacques Rancière, Kristin Ross, eta Slavoj Zizek (argtz.), *Democracia en suspenso* (59-78. or.). Casus Belli.
- Corretja, Mercè (2015). Elementos para la construcción del derecho a decidir a partir del derecho comparado. In Mercè Barceló, Mercè Corretja, Alfonso González, Jaime López, eta Josep Villajosana, *El derecho a decidir. Teoría y práctica de un nuevo derecho* (41-66. or.). Atelier.
- Corretja, Mercè (2016). El fundamento democrático del derecho de los catalanes a decidir. In Jorge Cagiao y Conde, eta Gennaro Ferraiuolo (koord.), *El encaje constitucional del derecho a decidir* (62-81. or.). Catarata.
- EAJ - Eusko Alderdi Jeltzalea (2020). Aberri Estatutuak. <https://www.eaj-pnv.eus/eu/adjuntos-agiriak/20073/pdf/aberi-estatutuak-2020>
- EAJ - Eusko Alderdi Jeltzalea (2024). Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunde Programa. 2024. https://www.eaj-pnv.eus/eu/agiriak/21243/a21eko_hauteskunde-programa
- EH Bildu (2024). Gobernu Programa. 2024-2028. <https://pello.eus/gobernu-programa/>
- Goikoetxea, Jule (2013). Nationalism and Democracy in the Basque Country (1979-2012). *Ethnopolitics*, 12(3), 268-289. <https://doi.org/10.1080/17449057.2012.711049>
- Goikoetxea, Jule (2015). Subirautza, erabakia, ahalmena eta demokrazia. *Riev. Cuadernos*, 11, 32-44. <https://www.eusko-ikaskuntza.eus/en/riev/subirautza-erabakia-ahalmena-eta-demokrazia/rart-24280/>

- Goikoetxea, Jule (2017). *Demokraziaren Pribatizazioa: Kapitalismo Globala, Europa eta Euskal Lurraldeak*. Elkar.
- Goikoetxea, Jule (2018a). Demokraziaren pribatizazioa, kapitalismoa eta burujabetza. *Burujabetza pluralean, Iratzar Fundazioa*, 19-34. <https://www.iratzar.eus/img/dokumentuak/Burujabetza-pluralean.pdf>
- Goikoetxea, Jule (2018b). Sovereignty, capacity and democracy: the Basque Case. In Ashild Kolas, eta Pedro Ibarra (argtz.). *Sovereignty revisited. The Basque case* (126-142. or.). Research Institute Oslo.
- Hinsley, Francis Harry (1986). *Sovereignty*. Cambridge University Press.
- Jessop, Bob (2008). *El futuro del Estado Capitalista*. Catarata.
- Jessop, Bob (2017). *El Estado: pasado, presente y futuro*. Catarata.
- Lasagabaster, Iñaki (2016). La propuesta de reforma del Estatuto de Autonomía del País Vasco: Del Parlamento Vasco al Congreso de Diputados. El final de un ciclo (2000-2006). *Iura Vasconiae*, 12, 217-253. https://www.revistaiuravasconiae.eus/sites/default/files/revista/Iura%2012%5B217-253%5D_fedhav.pdf
- López, Jaume (2015). El derecho a decidir: el principio democrático en el Siglo XXI. In Mercè Barceló, Mercè Corretja, Alfonso González, Jaume López, eta Josep M. Villajosana, *El derecho a decidir. Teoría y práctica de un nuevo derecho* (19-40. or.). Atelier.
- McAdam, Doug; Tarrow, Sidney, eta Tilly, Charles (2001). *Dynamics of Contention*. Cambridge University Press.
- Nikolas, Zelai; Zubiaga, Mario; Oiarbide, Angel, eta Urrutia, Iñigo (2016). Erabakitze eskubidea: erabakiaren aroa kudeatzeko tresna. *Jakin*, 214, 11-48. <https://www.jakin.eus/aldizkaria/artikuluak/erabakitze-eskubidea-erabakiaren-aroa-kudeatzeko-tresna/3685>
- Olariaga, Andoni (2018). Burujabetza eta erabakitze eskubidea. *Burujabetza pluralean, Iratzar Fundazioa*, 35-48. <https://www.iratzar.eus/img/dokumentuak/Burujabetza-pluralean.pdf>
- Otxandiano, Pello (2024). Eraldaketa nazional berri baterako herri-proiektua eta gobernantza eredua [Diskurtsoa]. *Lehendakariaren inbestidura saioa. Eusko Legebiltzarra*. https://pello.eus/wp-content/uploads/2024/06/Eraldaketa_nazional_berri_baterako_herri_proiektua_eta_gobernantza.pdf
- Poulantzas, Nicos (1979). *Estado, poder y socialismo*. Siglo XXI Editores.
- Pradales, Imanol (2024). Inbestidura Saioa [Diskurtsoa]. *Lehendakariaren inbestidura saioa. Eusko Legebiltzarra*. https://www.eaj-pnv.eus/adjuntos/pnvDocumentos/21407_archivo.pdf
- Requejo, Ferran (2015). Secession theories and processes in plurinational democracies. The Catalan case. *Riev. Cuadernos*, 11, 78-92. https://www.eusko-ikaskuntza.eus/files/artikuluak/Riev_cuad_11_078_092.pdf
- Santiago, Karlos; Jimenez, Olaia, eta Lukas, J.F. (2018). Metodo mistoak Hezkuntza-ikeruntzan. *TANTAK*, 30, 87-111. <https://doi.org/10.1387/tantak.19827>
- Sassen, Saskia (2010). *Territorio, autoridad y derechos. De los ensamblajes medievales a los ensamblajes globales*. Katz Editores.
- Sorens, Jason (2012). *Secessionism: Identity, Interest and Strategy*. McGill-Queen's University Press.
- Spivak, Gayatri (1988). Can the subaltern speak? In Cary Nelson, eta Lawrence Grossberg (argtz.), *Marxism and the interpretation of culture* (271-313. or.). Macmillan Education.
- Tilly, Charles (2010). *Democracia*. Ediciones Akal.
- Triandafyllidou, Anna (1998). National identity and the 'other'. *Ethnic and Racial Studies*, 21(4), 593-612. <https://doi.org/10.1080/014198798329784>

- Triandafyllidou, Anna (2022). Contextualising nationalism. *Ethnicities*, 22(4), 573-588. <https://doi.org/10.1177/14687968221085260> [Kontsulta eguna: 2024/09/14].
- Triandafyllidou, Anna (2023). Pandemic nationalisms. *Ethnicities*, 23(4), 616-633. <https://doi.org/10.1177/14687968221149744>
- Vizán, Ander (2018). Mugimendu nazionalisten aldarrikapena: autodeterminazioa eta erabakitze eskubidea Euskal Herrian eta Katalunian. *UZTARO*, 105, 47-68. <https://aldizkariak.ueu.eus/index.php/uztaro/article/view/4715>
- Yuval-Davis, Nira (2004). *Género y nación*. Centro de la Mujer Peruana Flora Tristán.
- Zabalo, Julen, eta Odriozola, Onintza (2017). Eredu aldaketa euskal nazionalismoan? Demokrazia kontzeptuaren garrantzia. *Jakin*, 219, 59-80. <https://www.jakin.eus/show/e6637538f8403cff8210404eb56e2629b59c3ade>
- Zubiaga, Mario (2012). Euskal Estatua eta nazio, ekintza kolektibo gisa: euskal estatugintzaz. In Ipar Hegoa Fundazioa (argtz.), *Euskal Estatuari bidea zabaltzen. Herrigintza eta erakundeak* (111-140. or.). Ipar Hegoa Fundazioa eta UEU.
- Zubiaga, Mario (2015). La decisión democrática como fundamento del derecho a decidir: el caso catalán. *Riev. Cuadernos*, 11, 94-118. <https://www.eusko-ikaskuntza.eus/es/publicaciones/la-decision-democratica-como-fundamento-del-derecho-a-decidir-el-caso-catalan/art-24276/>